





# Grekoa II

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKAIN TASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

## **A AUKERA**

Itzuli testu hau, eta erantzun galderai:

Apolodoro, *Biblioteka*, 2.4.12

*Heraklesek Pitiairi argibidea eskatu*

Ἡ δὲ Πυθία<sup>1</sup> τότε πρῶτον Ἡρακλέα αὐτὸν προσηγόρευσε· τὸ δὲ πρῶτην Ἀλκείδης<sup>2</sup> προσηγορεύετο. κατοικεῖν δὲ αὐτὸν εἶπεν ἐν Τίρυνθι<sup>3</sup>, Εὐρυσθεῖ<sup>4</sup> λατρεύοντα ἔτη δώδεκα.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: κατοικεῖν δὲ αὐτὸν εἶπεν ἐν Τίρυνθι.
2. προσηγόρευσε aditzaren analisi morfologikoa. Jokatu aditz hori indikatiboko aoristoan (aktiboan).
3. Izen honen analisi morfologikoa: ἔτη. Izen horren singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: πρῶτον. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Tragedia grekoa: Sofokles.
6. Aristofanesen *Lisistrata*: zein da obraren gaia?

---

<sup>1</sup> Izen berezia, "Pitia" (nom. sing.).

<sup>2</sup> Izen berezia, "Alzides" (nom. sing.).

<sup>3</sup> Leku-izena, "Tirinte" (dat. sing.).

<sup>4</sup> Izen berezia, "Euristeo" (dat. sing.).

## **B AUKERA**

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Lisias, *Eratostenesen aurka*, l 21

### *Akusatuen jokabide lotsagarria*

Οὔτοι γὰρ πολλοὺς μὲν τῶν πολιτῶν εἰς τοὺς πολεμίους ἐξήλασαν, πολλοὺς δ' ἀδίκως ἀποκτείναντες ἀτάφους ἐποίησαν, πολλοὺς δ' ἐπιτίμους ὄντας ἀτίμους κατέστησαν.

### Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: πολλοὺς δ' ἀδίκως ἀποκτείναντες ἀτάφους ἐποίησαν.
2. ἐποίησαν aditzaren analisi morfologikoa. Jokatu aditz hori indikatiboko orainaldian (aktiboa).
3. Izenordain honen analisi morfologikoa: οὔτοι. Izenordain horren pluraleko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: πολιτῶν. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Historiografia grekoa: Herodoto.
6. Aristofanesen *Lisistrata*: obraren pertsonaia eta eszena nagusiak.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

### GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzegatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzegatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzegatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.